



(Más impunidad policial) Alertan del riesgo de que se archive el caso Iñigo Cabacas

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 30/11/2016

Salgamos a la calle para terminar con la impunidad, salgamos a la calle para decir bien alto que no se puede archivar el caso

IÑIGO CABACAS AUZIA ARTXIBIBATZEAREN AUKERAREN AURREAN HERRI EKIMENETIK EGITEN DUGUN IRAKURKETA

4 urte eta erdi igaro dira Iñigo Cabacas gaztea, Ertzaintzak jaurtitako pilotakada baten ondorioz hil egin zutenetik. Hasieratik familia, lagunak eta herri ekimenetik, defentsak aurkeztutako eskaeren aurrean botere judizialaren jarrera salatu izan dugu, gure ustez prozesu hau luzatzen eta luzatzen ibili direlako eta ez dugulako ikusi kasuan arduradunak identifikatzeko inolako asmorik.

Defentsak behin eta berriz eskatu egin du Ertzain ezberdinen inputazioa, haien artean “Ugarteko” arduradunarena, “cargar con todo” agindua eman zuelako, kailejoian inolako istilurik ez zegoela argi bazegoen ere. Hainbat informazio berri ertzain batzuek “El Correo” egunkarian emandako elkarrizketa baten ondoren jakin izan da, eta defentsak ertzain hauei deklarazioa berriro hartzea eskatu izan duenean. Eskaera hauek ez dute erantzunik izan eta aldiz abenduaren 6rako Instrukzio Epaitegiak auziarekin zer egin erabai beharko du.

Ze egoeraren aurrean uzten gaitu honek?

Gure ustez arrisku larri baten aurrean gaude.; gerta liteke kasua artxibatzea eta epaiketarik ez egitea.

Hori da une honetan salatu nahi duguna: Iñigoren erahilketa ezin da artxibatu!.

Ezin da arduradun polizial eta politikorik gabe kasu hau itxi. Horrek inpunitatearen aurrez aurre jarriko gintuen. Eta hainbatetan salatu duguna ziurtatuko litzateke; arduradunak estaltzen ari dira batzuen eta besteen artean. Eta hare larriagoa dena; inork ez du ezer egingo hau berriro gerta ez dadin. Gomazko piloten erabileraren debekurik ez dugu, Iñigoren erahilketaren arduradunik ez dugu .. beraz .. zeinek ziurtatzen digu hau berriro gertatuko ez denik?

Hurrengo egunetan instrukzio epaitegiak kasuarekin aurrera egin (eta epaiketa egitea) edo artxibatzea erabakiko du. Eta gu beldur gara. Txarrena espero dugulako.

Beraz, gure deialdia argia da; kalera atera gaitezen inpunitatearekin bukatzeko, kalera atera gaitezen kasua ezin dela artxibatu ozen esateko.

Horregatik, hurrengo ostegunean abenduak 1, “Injustizia gehiagorik ez” lelopean mobilizazio bat deitu nahi dugu Indautxuko Kirruli tabernatik Bilboko epaitegietara arratsaldeko 19:00etan. Mezu argi bi zabaltzeko: “Injustizia gehiagorik ez”

eta “Inpunitateari STOP”.

Lectura de la plataforma ante el posible archivo del caso de Iñigo Cabacas

Han pasado 4 años y medio desde que el joven Iñigo Cabacas fuera asesinado a consecuencia del impacto de una pelota lanzada por la Ertzaintza. Desde el principio desde la plataforma, la familia y los y las amigas, hemos venido denunciando la actitud del poder judicial ante las peticiones realizadas por la defensa, a nuestra manera de ver han alargado el proceso sin intención alguna de identificar a los responsables del caso.

La defensa ha solicitado una y otra vez la imputación de diferentes Ertzainas, entre ellos el del responsable “Ugarteko”, que ordeno “cargar con todo” a pesar de que estaba claro que en el callejón no había incidente alguno. Por otra parte se han conocido informaciones nuevas tras la entrevista concedida por varios Ertzainas al “Correo”, y la defensa ha solicitado volver a tomarles declaración. No ha habido respuesta a estas peticiones y sin embargo el Juzgado de Instrucción tiene que decidir que hacer con el caso antes del 6 de diciembre.

¿Ante que situación nos deja esto?

En nuestra opinión estamos ante un grave riesgo ; es probable que el caso se archive y que no haya juicio alguno.

Y eso es lo que queremos denunciar en este momento: iel asesinato de Iñigo no se puede archivar!.

No se puede cerrar este caso sin responsables policiales ni políticos. Eso nos plantaría cara a cara con la impunidad. Y refrendaría algo que hemos venido denunciando en múltiples ocasiones; se están tapando unos a otros. Y lo que es más grave; nadie va a hacer nada para que esto no se vuelva a repetir. No tenemos ninguna prohibición del uso de pelotas de goma, no tenemos ningún responsable de la muerte de Iñigo ... así que ... ¿quien nos asegura que esto no va a volver a ocurrir?

En los próximos días el juzgado de instrucción decidirá si seguir adelante con el caso (y celebrar juicio) o archivarlo. Y tenemos miedo. Porque nos tememos lo peor.

Así que, nuestra llamada es clara; salgamos a la calle para terminar con la impunidad, salgamos a la calle para decir bien alto que no se puede archivar el caso.

Por ello, **convocamos el próximo jueves 1 de diciembre una movilización desde la taberna Kurruli en Indautxu hasta los juzgados a las 19:00 de la tarde, bajo el lema “No más injusticia”**. Para lanzar dos claros mensajes: “No mas injusticia” y “STOP a la impunidad”.

<https://eh.lahaine.org/mas-impunidad-policial-alertan-del>